




ARANGUREN IBARREKO UDALAREN INFORMAZIO-BULETINA

BERDINTASUN ZERBITZUA

www.aranguren.es

DESIGUALDAD REAL,
JUSTICIA PENDIENTE

DESBERDINKERIA ERREALITATE,
JUSTIZIA LORTZEKE



8 DE MARZO
DÍA INTERNACIONAL
DE LAS MUJERES

MARTXOAK 8
EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO EGUNA

8M, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

INFORMAZIO GEHIAGO

- 2. OR → M8 KANPAINA
- 3. OR → ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
- 4. OR → M8 PROGRAMAZIOA
- 6. OR → BESTE JARDUERAK ETA ZERBITZUAK
- 8. OR → ZAINKETEN ALDEKO TOKIKO ITUNA
- 8. OR → EMAKUMEAK ETA ZIENTZIA KANPAINIA
- 9. OR → AHOLKULARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUA
- 10. OR → INTERESGARRIA IZAN DAITEKE...

Subvenciona / Diruz laguntzen du:

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Instituto Navarro para la Igualdad



Nafarroako Berdintasunerako Institutua



PACTOS POR LOS CUIDADOS EN NAVARRA
ZAINKETEN ALDEKO ITUNAK NAFARROAN

MARTXOAK 8 KANPAINIA

Arangurengo Udala
**“DESBERDINKERIA
 ERREALITATE,
 JUSTIZIA
 LORTZEKE”**
 kanpainaren
 erakunde
 sustatzailea da

Desberdinkeria errealitate, justizia lortzeke

Aurreko urteetan bezala, **martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta, Nafarroako hainbat toki eta lurralde entitatek, beren Berdintasun Zerbitzuen bitartez, kanpaina bateratua egin dute, lelo, irudi eta adierazpen instituzional banarekin.**

**DESIGUALDAD REAL, JUSTICIA PENDIENTE
 DESBERDINKERIA ERREALITATE, JUSTIZIA LORTZEKE**

Navarra, la segunda comunidad autónoma con mayor brecha salarial por razón de género. La primera con mayor porcentaje de mujeres con trabajos a tiempo parcial.

Generoagatik soldata-arakala handiena duen bigarren erkidegoa da Nafarroa. Lanak partziala duten emakume portzentaje handiena du.



**8 DE MARZO
 DÍA INTERNACIONAL
 DE LAS MUJERES**

**MARTXOAK 8
 EMAKUMEEN
 NAZIOARTEKO EGUNA**

**DESIGUALDAD REAL, JUSTICIA PENDIENTE
 DESBERDINKERIA ERREALITATE, JUSTIZIA LORTZEKE**

Tasa de inactividad por motivos de cuidados en Navarra: un 31,4 % en el caso de las mujeres, un 4,2 % en el de los hombres.

Zaintza lanagatik jarduerarik ez dutenen tasa Nafarroan: % 31,4 emakumeen kasuan, % 4,2 gizonenoketan.



**8 DE MARZO
 DÍA INTERNACIONAL
 DE LAS MUJERES**

**MARTXOAK 8
 EMAKUMEEN
 NAZIOARTEKO EGUNA**

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Desberdinkeria errealitate, justizia lortzeke

Aurten, Emakumeen Nazioarteko Egunean, Nafarroako Toki eta Lurralde Erakundee-tako Berdintasun Teknikarien Sareak mezu argi bat helarazi nahi du: **Genero berdintasuna oraindik lortu gabe dagoen justizia sozialeko auzi bat da.** Legeek eta araudiek berdintasun formala aitortu arren, berdintasun erreala ez da lortu, egunerokoan oztopo nabarmenei aurre egin behar baitiete lanaldi bikoitzak edo hirukoitzak egin behar dituztelako.

Nafarroako estatistikek hala erakusten dute: emakumeek gizonek baino % 20 gutxiago kobratzen dute, eta % 36 dira emakumeak lidergoko postuetan. Emakumeek betetzen zituzten, 2020an, lanaldi partzialeko enpleguen % 80 baino gehiago eta, gainera, familia betebeharrekin haien lanaldia baldintzatzen dutela adierazten dutenen % 87 emakumeak dira. Haien denbora bikoitza ematen dute zaintza-lanetan eta etxe-lanetan, eta horrek eragin negatiboa izaten du kalitatezko enpleguak lortzeko eta, oro har, haien ongizatean. Horren adibide da zaintza lanen eraginez ordaindutako enpleguan emakumeek izaten duten inaktibitate-tasa % 27,2 dela. Sektore feminizatuak dira oraindik prekarizatuena, eta batez ere emakumeek hartzen dituzte beren gain ordaindu gabeko lanak; eta horrek beren garapen profesionala mugatu eta bizitzaren eremu guztiei eragiten dien genero-arrakala iraunarazten du. Arrakala hori areagotu egiten da emakumeak migratzaileak direnean, desgaitasunen bat dutenean, LGTBIQ+ kolektibokoak direnean, eta abar.

Ordaindutako eta ordaindu gabeko lanaren dualtasunaren emaitza egiturazko desberdintasuna da, urgentziaz agerian jarri eta konpondu behar dena. Horixe bera salatzen ari da feminismoa 60ko hamarkadatik, alegia, zaintza lanen kontzeptuaren esanahia berrikusi zenetik.

Ezinbestekoa da aurrera egitea emakume guztien lana aintzat hartu eta baloratuko duen gizarte baterantz, erantzukidetasuna eta berdintasun politikak sustatu eta berdintasun erreala eragozten duten oztopoak ezabatuko dituen gizarterantz. Fake news delakoak atzean uzteko garaia da, baita berdintasuna jada lortua dela baieztatzen duten mito antifeministak ere. Erakunde, enpresa eta herritarrei arduraz jokatzeko eskatzen diegu oraindik ere gure gizartearen irauten duten genero arrakalak desagerrarazteko. Horretarako, adierazpen honen sinatzaileok honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Erantzukidetasuna sustatzeko sentsibilizazio programak eta kanpainak diseinatu eta abian jartzea, gizonak eta emakumeak neurri berean inplikatu eta intersektionalitatea kontuan hartuz, egoera zaugarrienetan dauden kolektiboen behar espezifikoak erantzuteko.
- Gure erakundeetako generoari loturiko soldata-arrakalaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko neurriak garatzea, eta bermatzea lan-hitzarmenek eta -akordioek

emakumeen lanaren balorazio justua islatzen dutela, bereziki sektore feminizatuetan.

- Ordaindu gabeko lana bizitzaren iraunkortasunerako ardatz nagusi gisa aitortzen eta baloratzen duten tokiko politikak ezartzea, eta pertsona guztiarentzako zerbitzu publiko unibertsalak bermatzea.
- Genero-berdintasunari buruzko eten-gabeko prestakuntza eskaintzea gure erakundeetako langile guztiei, eta politika publikoak eta administrazio-erabakiak genero-ikuspegiarekin aplikatzen direla ziurtatzea.
- Mugimendu feministak arlo horretan egindako ekarpenak eta lana aitortzea, eta antolatzen dituzten ekitaldi eta kontzentrazioetan parte hartzea gonbidatzea.

Ekintza horiek Nafarroa berdinzaleagoa eta feministagoa eraikitzen lagunduko dute, non emakumeek baldintza berdinetan parte hartu ahal izanen dugun bizitzaren eremu guztieta.



M8 PROGRAMAZIOA

4

MARTXOIA



KONTZERTUA

AHOTS BIHOTZAK KORUAREN eta musika eskolako TXELO TALDEAREN KONTZERTUA.

Lekua: Kultur etxeko auditoriumean.

Ordua: 19:00.

Musikaren bidez Emakumeen Nazioarteko Egunari babesa ematea helburu duen emanaldia da.

Errepertorioa musika tradizionalak eta garaikideak osatzen dute, eta horien artean Mikel Laboaren, Leonard Cohenen eta abarren abestiak aurkituko dira.

7

MARTXOA

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

**Elkarretaratzea eta Adierazpen Instituzionala irakurtzea.****Lekua:** Mutiloako Mutiloa plazan.**Ordua:** 12:00.*Musika egongo da "La Farruka" BATUKADAREN eskutik.***Antzerkia: "Ahora sí que sí". Adriana Olmedo, Xabier Artieda eta Nerea Bonorekin**

Gazte eta helduei zuzendua.

Lekua: Kultur Etxeko Auditorioa.**Ordua:** 19:00.**Prezioa:** 4 €.

Paqui eta Lola. Bi auzokide. Bi emakume. Bi lagun. Bi adiskide. Beren buruari aukera bat emateko garaia dela erabaki dute. Agur esateko possit bat. Hozkailua taperrez beteta. Bizirauteko eta etxea zaintzeko instrukzio zerrenda luzea eta soineko, ileorde, kapela, lepoko, fular... kanta, dantza... eta batez ere bizitzeko gogoz betetako maleta. Has dadila show-a...

*Zatoz gurekin Emakumearen Eguna ospatzera **komedia dibertigarri** honekin!*

Sarrerren salmenta: aurrez aurre edo udalaren webgunearen bidez:
<https://www.aranguren.es/eu/zerbitzuak/kultura/saldu-sarrerak-online/>

ERROLDATUENTZAKO AURRETIAZKO SALMENTAREN HASIERA

- ARANGUREN IBARREAN, OTSAILAREN 10EAN 10:00ETAN SISTEMAN ALTA EMANDAKOENTZAT. 10, 11 ETA 12AN ERROLDATUENTZAKO SALMENTA ESKLUSIBOA.
- SALMENTA-IREKIERA OROKORRA, OTSAILAK 13, OSTEGUNA, 10:00ETAN.

8

MARTXOA

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

**Iruñeko Mugimendu feministak deitutako manifestazioa.****Lekua:** Martxa Antoniuttitik
Gazteluko Plazaraino. **Ordua:** 13:00.



MARTXOA

IPUIN KONTALARIA

*Genero perspektibadun ipuin kontalaria.
Ventura Rodriguezek eskainia.*



Doako sarrera, lekuak agortu arte.


4 urtetik aurrera.

Lekua: Kultur Etxea.

Ordua: 17:00 (euskaraz).

18:00 (gaztelerez).

Sipnositia: Pertsona guztiak berdinarak gara eta ez gara ez gehiago ez gutxiago gizon edo emakume izateagatik. Baina oraindik ere jabetu behar dugu oreka hori lortzea pertsona guztioi dagokigula neurri berean. Dinamika eta ipuin batzuen bidez, begirada zabaltzen saiatuko gara eta emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna duen gizarte bat gizarte hobea delaz jabetzen saiatuko gara.



Ventura Rodriguez. Idazlea, aktorea eta ipuin-kontalaria. Hurbilean errezitaldiak egiten ditu, mikrofono irekiak antolatzen ditu, ipuinak kontatzen ditu eta edozein eszenatokitako oholtzetara igotzen da. Norberaren eta beste egile batzuen muntaia. Hiru poema-liburu argitaratu ditu (gaztelaniaz eta euskaraz). 2022an *Iruñeko egile berriendako poesia lehiaketa* irabazi zuen.

BESTE JARDUERAK ETA ZERBITZUAK

GOIZEKO LUDOTXIKIA

Jolas gunea Ibarreko familien eskura jarri da, bai eta aretoan bertan dauden material eta jolas hezigarriak ere, seme-alabekin batera erabiltzeko.

Goizeko Ludotxikian, haurrek uneoro heldu baten ardurapean egon beharko dira, zerbitzuak ez baitu begiralerik aretoan.

Lekua: Ibaialdeko lokaletan.

Orduetgia: astelehen eta ostiralak 11:00etatik 13:00etara.



BESTE JARDUERAK ETA ZERBITZUAK

ENTRENAMENDU ESPEZIFIKOA: EMAKUMEA ETA INDARRA

Indarra garatzea erresistentzia-indarra landuz (karga ertain edo arinak dituzten zirkuituak eta lan-denbora luzeak).

Data: Asteazkena apirilaren 30tik ekainaren 4ra. Interesa izanez gero, idatzi igualdad@aranguren.es helbidera edo deitu 948 15 13 82 telefono zenbakira.

Lekua: Mutiloako polikiroldegiko 1 gelan.




TAILERRA: ORDENAGAILUAREN ETA MUGIKORRAREN OINARRIZKO FUNTZIONAMENDUA

Ordenagailuaren eta mugikorraren oinarritzko erabilerari buruz ikasi eta zalantzak argitu nahi dituzten persona guztientzat: artxiiboak kudeatzea, WhatsApp-en erabilera, Drive, Maps, etab.

Lekua: Jubilatuen elkarteko jardueren gela.

Izen-ematea: otsailaren 4etik 7ra 948 012 012 deituz 8:00etatik 18:00etara edo www.aranguren.es webgunean.



MENOPAUSIA BIRDEFINITZEN

40 eta 60 urte bitarteko emakumeei zuzenduta. Tailer honek menopausia birdefinitzen du, ez saihestezineko gainbehera gisa, ezta sintoma nahigabez betetako aldi gisa ere, baizik eta modu aberasgarri eta atseginean bizi daitekeen prozesu gisa.

Datak: Otsailak 25 eta martxoak 11, asteartea.

Interesa izanez gero, idatzi igualdad@aranguren.es helbidera edo deitu 948 15 13 82 telefono zenbakira.

Lekua: Irulegi Ikastetxe Publikoan.

GAZTEENDAKO AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKOKO ZERBITZUA DOAN

Psikologiari lotutako gaietan laguntzeko zerbitzua da, arreta pertsonalizatu, zuzen eta indibidualizatuaren bitartez.

Informazioa: Aranetxean, 689 80 87 32 / 948 23 75 58 edo aranetxea@aranguren.es.



ZAINKETEN ALDEKO TOKIKO ITUNA

2023ko udazkenean, Aranguren Ibarreko Udalak bat egin zuen **Nafarroako Zainketen aldeko Itunak** programarekin. Programa horren helburua da Nafarroako Foru Komunitateak eta Toki Entitateek, baita entitate publiko, pribatu eta sozialek ere, zainketekin duten konpromisoa sustatzea. Kontziliazio eta erantzunkidetasun kontzeptuetatik harago joan eta **zaintzak banatu eta partekatzerantz beste urrats bat eman nahi duen lan esparru baten barruan dago itun hau, berdintasun proposamen politikoak gure bailarako momentuko errealitate sozial eta kulturalera egokituz.**

Zainketatzen hartzen da giza bizitza duina, autonomiaz eta ongizatean erreproduzitzeko eta sostengatzeko beharrezkoak diren ahalegin, zeregin eta lan pribatu eta publikoen multzoa. Zaintzak herritar guztientzako onuragarriak dira, eta, tradizionalki emakumeei egotzi zaizkien arren, betebeharrak demokratikoa dira, baita etxeetan ere, non bizikide diren pertsona guztien artean banatu behar diren, gizonak, emakumeak eta haurrak.

Finetan, zaintzak ikusarazteko, aitortzeko, partekatzeko eta birbanatzeko ekintza zehatzak garatzen dituzten akordio multzoa da. Akordio horiek zaintzak bizitzaren eta politika publikoen erdigunean jartzeko proposamenak eta irtenbideak artikulatzen dituzte. Hain zuzen ere, 2024ko urrian zehar tailerrak egin dira jubilotekan eta ADACENen, ituna garatzeko.



2024ko Urriaren 22ko "Cuidanía, otra forma de cuidarnos" tailerraren Saioa, Jubilotekan egindakoa

EMAKUMEAK ETA ZIENTZIA KANPAINIA

Otsailaren 11ko 'Neska eta Emakume zientzilarien eguna' dela eta, Aranguren Ibarreko Udaleko Ingurumen alorrak eta Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuna alorrak hiru jarduerara antolatu dituzte.

Efemeride honen bidez, emakumeek historian zehar zientzian izan duten zeregin garrantzitsua ikusarazi nahi da, emakumeek komunitate zientifikoan eta teknologian duten funtsezko zeregina aintzatesteko eta emakumeek eta neskek zientzia, teknologia, ingeniariaritz eta matematikaren esparrietan hezkuntza, trebakuntza eta ikerketara sarbidea izan dezaten sustatzeko.



EMAKUME ETA FAMILIENTZAKO AHOLKULARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUA



Emakumeentzako eta familientzako aholkularitza juridikoko zerbitzua Aranguren Ibarreko Udalaren zerbitzu propioa da, eta dohainik ematen ditu familia-gaiei buruzko informazioa eta aholkularitza (banantzeak, dibortzioak, izatezko bikoteak, ezkontzaren araubide ekonomikoa), lan-gaiei buruzkoak (amatasun- eta aitatasun-baimenak, edoskitze-baimenak, zaintzagatiko eszedentziak eta baimenak, kaleratzeak), gizarte-segurantzaren prestazioak (alarguntza-prestazioak, zurtasuna), testamentu-xedapenak, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko gaiak (salaketak, urruntze-aginduak)....



HARRERA EMATEKO ORDUTEGIA:

Astelehenero, 10:00etatik 13:00etara, Aranguren Ibarreko Udaletxeko bigarren solairuan (Mutiloa plaza z/g). Informazio gehiagorako eta/edo hitzordua erreserbatzeko: Oinarrizko Gizarte Zerbitzua. Telefonoa: 948 151 382.

INDARKERIARI AURRE EGITEKO BALIABIDEAK



**GENERO
INDARKERIA
EGOEREI
ERANTZUTEKO
ZERBITZUAK**

INFORMAZIOA ☎ 016 - 24 Ordu egunean (ez du uzten arrastorik fakturan)

LARRIALDIAK ☎ 112

GIZARTE ZERBITZUAK ☎ 948 15 13 82 / As-Or 9:00-14:00

UDALTZAINGOAK ☎ 609 42 90 74 / As-Ig 7:00-22:30

OSASUN ETXEA (Gizarte Langilea) ☎ 948 24 91 05 / As-Or 8:00-15:00

BERDINTASUN ZERBITZUA ☎ 948 15 13 82 / As-Or 9:00-14:00

EMAKUME ETA FAMILIAREN ZERBITZU JURIDIKOKO ☎ 948 15 13 82 / As-Or 8:30-14:30

SEXU-INDARKERIETARAKO ARRETA INTEGRALEKO ZENTROARI BURUZKO INFORMAZIOA (SIAIZ)
☎ 848 46 38 60 - 621 145 751 / As-Og 8:00-19:00 Or 8:00-17:00

INDARKERIA JASATEN DUTEN EMAKUMEEI ARRETA INTEGRALA EMATEKO LAN TALDEA
☎ 848 463 999 - caivs@fundaciongizain.es Eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan

DELITU BIKTIMEEI ARRETA KO BULEGOA ☎ 848 42 33 76 - 848 42 13 87 - 848 42 76 71

ARRETA PSIKOLOGIKOA ☎ 682 91 61 36 - 682 50 85 07

INTERESGARRIA IZAN DAITEKE...

01

Zainteren aldeko Itunen dokumentazioa (INAI)

<https://pactoscuidados.igualdadnavarra.es/eu/documentos/>

02

Zainteren oinarriak irakurketa errazean

<https://pactoscuidados.igualdadnavarra.es/3d-flip-book/fundamentos-de-los-cuidados-lectura-facil/>

03

Emakumeen aurkako biolentzaren eskuorri berriak eta gazteendako guidak hainbat hizkuntzatan (INAI):

Gaztelera-Euskara, Arabiera-Frantsesa, Ingelesa-Frantsesa, Txinera-Errusiera

INAIen eskatu edo hemen jeitsi:

<https://www.igualdadnavarra.es/eu/biktimei-arreta-integrala-emateko-taldeak>

04

Irakurketa errazeko argitalpenak. Genero biolentziaren aurkako Gobernu Delgazioa, Berdintasun Ministerioa.

<https://www.igualdad.gob.es/servicios/publicaciones/publicaciones-lectura-facil/>

05

INAI dokumentazio zentruko argitalpenak

<https://www.igualdadnavarra.es/eu/argitalpenak-2>

06

Berdintasun Ministerioako dokumentazio zentrua

<https://www.inmujeres.gob.es/CentroDoc/Home.htm>

07

¿IPES Fundazioa ezagutzen duzu? ¿Eta bere liburutegia?

<https://fundacionipes.org/>

08

AHOLKULARITZA ZERBITZUA empresa berdintasun planak egiteko (INAI - Nafarroako Gobernua)

<https://www.igualdadnavarra.es/eu/berdintasun-planen-elaborazioa>



Berdintasun Arloko buletina posta elektronikoz jaso nahi baduzu, eskatu helbide honetan: igualdad@aranguren.es

Udalaren webgunean ere lortu daiteke:

www.aranguren.es/eu/zerbitzuak/berdintasuna/

BERDINTASUN ZERBITZUA Aranguren Ibarreko Udala

Mutiloa Plaza, z/g 2. solairua - Mutiloa

Astelehenetik ostiralera - 9:00-14:00 | Tel. 948 15 13 82 | igualdad@aranguren.es